

GUGGENHEIM BILBAO

2023
PROGRAMAZIOA



GUGGENHEIM BILBAO

Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak

Urtarrilak 24 – abenduak 31, 2023

Aretoak: hirugarren solairua

Komisarioa: Lekha Hileman Waitoller

Babeslea: BBK



Erakusketa hau Museoaren Bilduman oinarritzen da, eta artearen historiako mugimendu ezberdinetako obra adierazgarriak nabarmentzen dira bertan, gerraosteko garaitik gaur egunera bitartekoak. Zein bere garaiaren abangoardian ibili diren eta funtsezko ekarpenak egin dituzten izenen erakusgarri dira erakusketan jasotako piezak.

Aretoetako batzuetan, El Anatsui, Cristina Iglesias eta Sol LeWitt-en lanak daude ikusgai; beste batzuetan, berriz, pop arteari nahiz New Yorkeko Eskolari buruzko gaikako instalazioak; baita, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako abstrakzio-modu ugarietako batzuk ere. Mugimendu horiek eta haiek jorratzen aritu ziren artistak dokumentatzen dituzten material historikoak biltzen ditu erakusketak.

Jeff Koons

Idi-bihotzak (Tulips), 1995–2004

Kromo asko duen altzairu herdoilgaitza

koloredun laka zeharrargiarekin

203 x 460 x 520 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

©Jeff Koons, Bilbo, 2023


GUGGENHEIM BILBAO

Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945

Otsailak 10 – maiatzak 25, 2023

Aretoa: 105

Komisarioa: Enrique Juncosa



XX. mendeko artista gailenetako batek 1920 eta 1945 urteen artean egindako ibilbidea aztertzen duen erakusketa. Miróren obraren funtsezko aldi hori Parisera lehenengo bidaia egin zuenean hasi zen —Paris giltzarri izan zen bere obran eta bere biografian—, eta *Konstelazioak* (*Constellations*, 1940–41) egin ondoren, eta urte batzuk apenas margotu gabe eman eta gero, artistak hondo zuri gainean margotutako obra sail handi bat sortu zuenean amaitu zen. Hain zuzen ere, lan horiek finkatu zuten Miróren lengoaia, hondo anbiguen gainean flotatzen ageri diren zeinuz osatua.

Erakusketak biltzen dituen 25 urteetako ibilbidean margolariak etengabe landu zituen ideia berriak, bere hastapenetako errealismo magikoarekin has eta konstelazio itxuran ageri diren zeinuz osatutako lengoaiarekin buka. Transformazio horretan nabaria da Mirók historiaurreko artearekiko —labar-pinturak, petroglifoak eta estatuatxoak barne— zuen erakarpena. Izan ere, bere ohar-koadernoetan baieztatu zuen hori, adieraziz artearen hastapenetara itzultzea eta bere jatorrizko zentzu espirituala berreskuratzea zela bere nahia.

Joan Miró

Pintura (Eguzkia) [Peinture (Le Soleil)], 1927

Olio-pintura mihise gainean

38,3 x 46,2 cm

Eskaintza: The David & Ezra Nahmad Collection

© Sucesió Miró, 2023

GUGGENHEIM BILBAO

Oskar Kokoschka

Martxoak 17 – irailak 3, 2023

Aretoak: 205, 206, 207 eta 209

Komisarioak: Dieter Buchhart eta Anna Karina Hofbauer

Babeslea: BBVA Fundazioa

Egoitzak: Musée d'Art Moderne de Paris, Guggenheim Bilbao Museoa



Vienako modernismoaren aitzat hartzen den artista austriarrari espainiar Estatuan eskainitako lehen atzera begirako handia dugu hau. Oskar Kokoschkak (1886–1980) arrakasta goiztiarra lortu zuen Vienako artearen eszenan, non Gustav Klimten laguntza jaso baitzuen, eta eragin nabarmena izan zuen Egon Schiele gaztearengan. Bere ibilbidean berandu lortu zuen arrakasta, bi mundu gerren ostean. Bigarren Mundu Gerraren amaieran, Kokoschkak jada Europa batuaren aldeko deia egin zuen. Bere azken lanek oihartzuna izan zuten Neue Wilde mugimenduan, Austria eta Alemaniako pintura berrian, alegia.

Jarduera ugartan aritu bazen ere —antzerkitik hasi eta aktibismo politikoraino, idazketatik pasatuz—, artea izan zen bere bizitza osoko hari nagusia. Izan ere, bere burua artista gisa etengabe berrasmatzeari utzi gabe, maisulanen corpus artistiko iraultzailea sortu zuen: aktibismo politikoaren testuinguruan ekintzaile gisa, bai eta arte figuratiboaren bultzatzaile nahiz arima-margolari gisa.

Oskar Kokoschka

Dortoka erraldoiak (Riesenschildkröten), 1927

Olio-pintura mihise gainean

90,4 x 118,1 cm

Kunstmuseum Den Haag, Haga, Herbehereak

© Fondation Oskar Kokoschka, 2023 VEGAP, Madril

GUGGENHEIM BILBAO

Lynette Yiadom-Boakye

Maiatzak 31 – irailak 10, 2023

Aretoak: 201, 202, 203, 204, 208

Komisarioa: Lekha Hileman Waitoller



Lynette Yiadom-Boakye artista eta idazle britainiarra zorian, adiskidetasun zein bakardade uneetan irudikatu ohi dituen pertsonaia atemporalen erretratuengatik da ezaguna. Mihise edo liho landugabe gainean pintzelkada askez margotzen dituen olio-pintura oparoek fikziozko pertsonaiak erakusten dituzte atzealde nabarmenen gainean irudikatuta. Iturri ezberdinetatik hartutako elementuen —esaterako egunkari-ebakinak eta marrazkiak— uztarketatik jaiotzen dira artistaren irudiak, eta, zenbaitetan, animaliak ere azaltzen dira horiekin batera — hontzak, azeriak edo txakurrak, adibidez—, maskotak bailiran azaldu ere, batzuk basapiztiak izan arren. Yiadom-Boakyeren obrek gonbita luzatzen dute kontenplazio lasaia egiteko, artistak irudikatutako istorio bisualetan murgiltzeko. Artelanen titulu poetikoek gogoeta eskatzen dute, eta aditzera ematen dute ez direla pintura soilak: fikzioak dira, eta aukera zabala uzten diote behatzailearen interpretazioari.

Musika da Yiadom-Boakyen lana elikatzen duten sormen-indarretako bat. Horrenbestez, artistak berak erakusketarako berariaz hautatutako konposizio-zerrenda bat izango dute eskuragarri bisitariak, sortzailearen inspirazio-iturriari buruzko testuinguru zabalagoa eskaintze aldera. Jendaurrean lehenengoz aurkeztuko diren 2020 eta 2023 artean sortutako margolanez eta ikatz-zirizko marrazkiz osatua egongo da erakusketa, eta katalogo ilustratu bat ere izango du, Yiadom-Boakye berak, Kodwo Eshun idazle eta zinemagileak eta Museoko komisario Lekha Hileman Waitollerrek idatzitako testuak barne hartuko dituena.

Yiadom-Boakye 1977an jaio zen Londresen; gaur egun bertan bizi da, eta lan ere hantxe egiten du, Central Saint Martins College of Art and Design, Falmouth College of Arts eta Royal Academy Schools-en ikasten aritu ondoren. Azken urteotan, bere obrari erakusketa monografikoak eskaini izan dizkie erakunde entzutetsuek, nola diren Serpentine Gallery, Londres (2015); Haus der Kunst, Munich (2015); Kunsthalle Basel, Suitza (2016); New Museum of Contemporary Art, New York (2017); Tate Britain, Londres (2020/2022); MUDAM, Luxenburgoko (2020); Kunstsammlung Nordrhein-Westfalen, Düsseldorf (2021); eta Moderna Museet, Stockholm (2021). Yiadom-Boakyek Kieveko Pinchuk Art Centre-ren Future Generation Art Prize saria jaso zuen 2012an; eta Pittsburgheko 57. Carnegie International-en Carnegie Prize saria 2018an.

Lynette Yiadom-Boakye

Goshawk, 2020

Olio-pintura mihise gainean

70 x 50 x 3.6 cm

Inb. zk.: LYB20-19

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, New York

GUGGENHEIM BILBAO

Yayoi Kusama: 1845etik gaur egunera

Ekainak 27 – urriak 8, 2023

Aretoak: 103 eta 105

Komisarioak: Doryun Chong, Mika Yoshitake eta Lucía Agirre

Babeslea: Iberdrola

Egoitzak: M+, Hong Kong, eta Guggenheim Bilbao Museoa



Japoniako Yayoi Kusama (Matsumoto, Nagano, 1929) artista eta idazlearen atzera begirako erakusketa. Artearen historiak berreskuratu eta dagokion lekua eman dion ahots berezia da Kusama, ikono kultural global bihurtzeraino. Azken zazpi hamarkadetan, artistak sendotasunez jarraitu du bere ikuspegi abangoardista, estetika pertsonal berezia eta bizitzaren filosofia nagusia jorratzen. Haren lanak mugarik gabeko espazioekin eta birsorkuntzaren ziklo naturalei buruzko hausnarketekin liluratuko gaitu.

Yayoi Kusama erakusketak artistaren bizitzaren eta obraren historia kontatzen du, lehen planoan jarrita haren interkonexio-nahia eta haren sormen-esplorazioek bultzagarri dituzten existentziari buruzko galdera sakonak. Azken hamarkadan artistak Estatuan izan duen atzera begirakorik handiena da: 200 bat obraz osatua — pinturak, marrazkiak, eskulturak, instalazioak eta haren happening-ak eta performanceak dokumentatzen dituen artxiboko materiala—, Kusamaren lana hartzen du aztergai, nerabe zela, Bigarren Mundu Gerran, egin zituen lehen marrazkietatik hasi eta murgiltze-artelan berrienetara bitarte. Kronologikoki eta gaika antolatuta dago, eta sortzailearen gai nagusiak jasotzen ditu: Infinitua, Metaketa, Konektibitate erradikala, Natura kosmikoa, Heriotza eta Bizitzaren Energia. Yayoi Kusamaren unibertso obsesiboaren ikuspegi sakona eskaintzen du, “gizateria osoa sendatu” nahian hamarkada luzez bere obrarekin gure unibertsoa astintzeko ahaleginean diharduen artistarena.

Yayoi Kusama

Auto-obliterazioa (Self-Obliteration), 1966–74

Pintura maniki gainean, mahaia, aulkiak, ileordeak, poltsa, katiluak, platerak, pitxerra, hautsontzia, plastikozko landareak, plastikozko loreak eta frutak

Gutzizko neurri aldakorrak

M+, Hong Kong

© YAYOI KUSAMA

GUGGENHEIM BILBAO

Picasso eskultorea. Materia eta gorputza

Irailak 29, 2023 – urtarrilak 14, 2024

Aretoak: bigarren solairua

Komisariak: Carmen Giménez eta Lucía Agirre

Egoitzak: Malagako Picasso Museoa, Guggenheim Bilbao Museoa



Pablo Picassok bere ibilbide artistiko zabalaren hasieratik landu zuen eskultura, Malagako artistarentzat eskultura ez baitzen bigarren mailakoa bere ekoizpenean. Aitzitik, pinturarekin, marrazkiarekin, grabatuarekin edo zeramikarekin pareka zitekeen adierazpen-modu bat zen; izan ere, ez dago arte nagusirik edo txikirik, sorkuntzaren alderdi ezberdinak adierazteko lengoia eta material ugari baizik. Gorputza irudikapenaren helburu gailena eta instrumentu nagusia izan zen Picassorentzat bere ibilbidean zehar, eta erakusketa honen funtsezko zutabea ere bada.

Artistak ezin konta ahala estilo erabiliz irudikatu zituen giza gorputzaren formak, formatu eta genero ezberdinen bidez deseraiki eta, ondoren, materia berri batean berreraikiz; eskura zituen baliabide eta objektu guztiak erabiltzen zituen horretarako, eta ordura arte ikusi gabea zen eskultura-multzoa sortu zuen hala. *Picasso eskultorea. Materia eta gorputza* erakusketarako aukeratutako eskulturek artistak jorratutako estilo-aniztasun ia amaigabe hori jasoko du. Julio Gonzalezen arabera, Picassoren eskultura-begiradan zetzan haren obra osoa: “Askotan ohartu naiz ez dagoela axolagabe uzten duen formarik. Dena begiratzen du uneoro, forma guztiak zerbait irudikatzen baitute harentzat; eta eskultore gisa, dena ikusten du [...]. Nire ustez, Picassoren obraren alderdi misteriotsua, zentro neuralgikoa, horrela deitzerik balego, ‘Eskulturan’ dago; haren obraz hainbeste hitz eginarazi duen eta hainbesteko aintza eman dion horretan”.

Pablo Picasso

Irudia: Guillaume Apollinaireren omenezko monumentu baterako proiektua (Figure: projet pour un monument à Guillaume Apollinaire), 1928

Burdin-haria eta txapa

59,5 x 13 x 32 cm

Musée national Picasso-Paris, dohaintza: Pablo Picasso, 1979, inb. zk.: MP265

Argazkia: © RMN-Grand Palais (Musée national Picasso-Paris) / Adrien Didierjean

© Sucesión Pablo Picasso, Vegap, Madril, 2023

GUGGENHEIM BILBAO

Marine Hugonnier: Landa-txostenak. / Field Reports

Urriak 24, 2023 – urtarrilak 21, 2024

Aretoa: 103

Komisarioa: Manuel Cirauqui



Marine Hugonnier (Paris, 1969) Londresen bizi den artista eta zinemagile frantsesa da, eta haren obrak munduaren interpretazio-baliabideak aldatzea bilatzen du etengabe. Horretarako, dokumental- eta fikzio-estrategiak erabiltzen ditu, erregistro bakoitzaren berezko anbioguotasunak aprobetxatuz.

Azken hamarkadan egin dituen ekoizpenetan, esperimentu filmikoetan aurkitu izan du kontrapuntua prozesu sozialen zuzeneko behaketak; esperimentu horietan, irudiak hartzeko gailu tradizionala —pelikula, lentea eta kamera ezinbesteko elementutzat hartuta— fenomeno eta agente naturalen aurrez aurre jartzen da, eta irudikapenaren mugak bilatzen ditu. *Meadow txostena* (*Meadow Report*, 2021) izeneko obra berria egiteko, artista Givernyko lorategiko urmaelaren aurrean kokatu zen ilunabarrean; hau da, Claude Monetek sortutako landare exotikoen lorategi artifizialean —hantxe margotu zituen pintoreak bere nenufar ospetsuak bere bizitzako azken hamarkadetan, pixkanaka ikusmena galtzen zihoala—. Hugonnierrek funtsezko bi gai horiek jorratzen ditu paisaiaren erregistro kontenplatibo eta isilaren bidez: batetik, naturaren manipulazioa, eta, bestetik, hura behatzeko teknologiarekiko dugun mendekotasuna. Zuzeneko pertzepzioa bilatu nahian, pelikularen une jakin batean artistak lentea kameratik kentzen du, eta horrek xehetasun guztiak urdin kolore bizira itzaltzea eragiten du, kolapso kromatikoa eragitea. Piezaren izenburuak “meadow” (larrea) hitzaren esanahi literalarekin jolas egiten du, baita *The Limits to Growth* (1972) bezala ere ezagutzen den Meadows txostenaren erreferentziarekin ere, planetako baliabideen kontrolik gabeko erabilerak egungo klima-krisia eragingo zuela aurreikusituen lehen dokumentuetako bat, alegia. Hugonnierren pieza nagusi horrekin batera, beste film eta argazki batzuk ere egongo dira ikusgai. Guztiek ere agerian utziko dituzte, bai 103 aretoan bai Museoaren Entzungelako proiektzio-programan, artistaren azken aldiko praktika bai eta praxi filmikoaren inguruan duen ikuskera berezia.

Marine Hugonnier

Meadow txostena (*Meadow Report*), 2021

35mm-ko filma, koloretan, soinuduna

Artistaren eskaintza

© Marine Hugonnier

GUGGENHEIM BILBAO

Gego: Infinitua neurtzen

Azaroak 7, 2023 – otsailak 4, 2024

Aretoa: 105

Komisarioa: Geanine Gutierrez-Guimarães



2023ko udazkenean, Guggenheim Bilbao Museoa atzera begirako erakusketa bat aurkeztuko du, Gego (Gertrud Goldschmidt, Hanburgo, 1912–Caracas, 1994) artista germaniar-venezuelarraren obrari eskainia. Ibilbide kronologiko horretan, sortzaileak abstrakzioarekiko zuen ikuspegi bereziaren bilakaera jorratuko da forma organikoen, egitura linealen eta espazioaren inguruko ikerketa sistematikoen bitartez. Erakusketako lanen artean, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, artista-liburuak eta ehunak egongo dira, 1950eko hamarkadaren hasieratik laurogeita hamarreko hamarkadaren hasierara bitartekoak. Gego Latinoamerikan XX. mendearen bigarren erdialdean izan den artistarik esanguratsuenetakoa da. Arkitektura eta ingeniariartzako ikasketak egin zituen Alemanian, eta 1939an Venezuelara joan zen nazien jazarpenetik ihesi; han hasi zuen bere karrera artistikoa. Erakusketak agerian jarriko ditu Gegok arte moderno eta garaikideari egindako ekarpen formal eta kontzeptual garrantzitsuak, eta nabarmendu egingo ditu abstrakzio geometrikoa, arte zinetikoa, minimalismoa eta postminimalismoa bezalako mugimendu artistiko transnazionalerako izan zuen interakzioa.

Museoa eskerrak eman nahi dizkie Gego Fundazioari eta haren zuzendari Tomás Gunz eta Barbara Gunzi, baita Fundazioko langileei eta Zuzendaritza Batzordeari ere, haien laguntza izugarri eta lankidetzaz estuarengatik, eskuzabaltasunez esku-eskura jarri baitituzte Fundazioaren bilduma eta artxiboak. Erakusketa hau ibilbide zabalago baten parte da, eta Mexiko Hiriko Jumexen Museoan, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumen eta Guggenheim Bilbao Museoan aurkeztuko da.

Gego

Gego *Retikularea* (*Reticulárea*) muntatzen, Arte Ederren Museoa, Caracas, 1969

Argazkia: Juan Santana

© Fundación Gego